

*Gizarte eragileen
eginkizuna sendotzea:
langileak eta sin dikatuak*



ELA



Rioko Lurraren Goi Bileran egiazko mugarri bilakatu zen, mundu osoa ohartarazi baitzuen ordura arte berria zirudien zera honetaz: Lurraren ingurumen-arazoak estu-estu loturik daude ekonomikoaren eta justizia sozialaren gorabehereri. Bestalde, goi-bileran hark frogatu egin zuen epe luzera jorratu beharreko gaiak direla gizartearen, ingurumenaren eta ekonomia-aren arazoak. Frogatu zuen, halaber, ingurumenaren kalterako izaten dela herritarrak pobreak eta ekonomiak ahulak izatea, gizon-emakumeek sufritu egiten dutela eta ekonomiak hondatu ingurumenari gehiegikeriak egiten bazaizkio eta baliabideak alferrik gastatzen badira. Beste hau ere nabarmendu zuen Rioko Goi Bilerak: tokian tokiko erabaki edo ekintzek txikiak direla ere, egokiak edo okerrak direla ere— mundu osoan izan dezakete eragina.

Gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-faktoreak elkarri lotuta daudela eta elkar aldatu egiten dutela erakutsi zuen Rioko bilerak. Gailur haren helburu nagusia ingurumenari eta garapenari buruzko agenda zabala eta plan berria (mundu osorako neurriez hornitua) eratzea zen, hurrengo urteetan nazioarteko lankidetzak-politikak garatzeko baliagarri izango zen plana.

Rion aldarrikatu zen garapen jasangarria deritzona, mundu osoan—eskualde-, nazio-, herrialde- edo nazioarte-mailan— garatu beharreko helburu egingarritzat aldarrikatu ere. Hantxe aldarrikatu zen erabateko lehentasuna duela honek: munduan giza bizitzak jarraituko badu, erabateko

lehentasuna du gai ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak bat egitea eta orekatzea giza-kion premiak asetzeko. Hantxe aldarrikatu zen hori guztia lortzea badagoela denok eginkizun horri ekiten badiogu, oreka eta bat-egite hori (gai ekonomiko, sozial eta ingurumenekoena) gauzatzeko beste ikuspegi batetik aztertu behar dugula zer eta nola ekoizten eta kontsumitzen dugun, nola bizi garen, nola lan egiten dugun, nolako harremanak ditugun eta erabakiak nola hartzen ditugun.

Agenda 21 da gai horien guztien konponbide teoriko orokorra.

Agenda 21ek langileei eta sindikatuei eskaintzen dien atala duzue jarraian aurkeztuko dizuegun txostena. Langileei eta sindikatuei dei egiten die kapitulu honek parte har dezaten garapen jasangarriari buruzko alor guztietan: ekonomikoan, sozialean eta ingurumenekoan.

Badago motiborik kritiko izateko Agenda 21ek orain arte eman duenarekin. Baina geuri dagokigun erantzukizuna ere ezin dugu ahaztu, zenbaitetan ez baitugu jakin gure ahotsa behar bezala entzunarazten Agenda 21en prozesuetan.

Langileak Agenda 21en prozesuetan esku hartzera bultzatzea, hori da txosten honen helburua. Izan ere, esateko asko daukagu langileok arlo horretan ere. Azken batean, geure etorkizuna dago jokoan.

Iñigo Sagarna

Agenda 21

Gizarte-eragileen eginkizuna sendotzea: Langileak eta sindikatuak

Ekintzarako oinarriak

29.1 Garapen jasangarria gauzatu ahal izateko doiketak egin behar dira bai nazioetan bai enpresetan, baita aukera berriak eskaini ere. Langileak eurak dira horretan interes handiena dutenak. Sindikatuak, langileen ordezkari direnez, ezinbesteko faktorea dira garapen jasangarria lortzeko, honako arrazoi hauengatik: industrian izaten diren aldaketekin duten harremanagatik, laneko ingurunea eta –oro har– ingurumena babesteari ematen dioten lehentasunagatik eta, azkenik, garapen arduratsua bultzatzea nahi dutelako, bai gizarteari bai ekonomiari dagokienez. Sindikatuen arteko lankidetzaren sarea eta haien afiliatu-kopuru handia garrantzizko bitartekoak dira garapen jasangarriaren aldeko kontzeptuak eta jarduerak sustatzeko. Kudeaketa hirukoitzaren printzipioak dira oinarri langileen eta euren ordezkarien, gobernuen eta enpresaburuen

arteko lankidetzaren sendotzeko, garapen jasangarriaren bidean betiere.

Helburuak

29.2 Pobrezia gutxitzea eta erabateko enplegu jasangarria lortzea da helburu orokorra. Bi egitasmo horiek gauzatzeko ingurumen garbiak, seguruak eta osasungarriak edukitzea dakar, hau da, laneko, hiriko edo herriko eta natur inguruneen giroak arraz hobetzea. Beraz, langileek buru-belarri hartu behar lukete parte Agenda 21en jarduerak ebaluatzen eta gauzatzen.

29.3 Helburu horiek lortzeko asmoz, honako xede hauek proposatzen ditugu 2000. urterako:

a) LNEren (Lanaren Nazioarteko Erakundea) hitzarmenak berresteko ahaleginak egitea, baita nazio bakoitzari dagokion legeria indarrean jartzea ere;



- b) Alde biko eta hiruko bitartekoak jartzea segurtasunaren, osasunaren eta garapen jasangarriaren alorrean;
- c) Garapen jasangarria helburu duten ingurumen-hitzarmen kolektiboak ugaltzea;
- d) Laneko istripuak, lesioak eta gaixotasunak gutxitzea (horien zenbaketa metodo estatistiko homologatuen bidez egin behar litzateke);
- e) Langileen trebakuntza, gaikuntza eta birgaikuntza bultzatzeko bitartekoak areagotzea, batez ere laneko osasun- eta segurtasun-alorrean, baita ingurumen-gaietan ere.

Jarduerak

a) *Elkartzeko askatasuna sustatzea*

- 29.4 Langileek eta horien sindikatuek garapen jasangarriaren alde behar hainbateko prestasunez eta eraginkortasunez jardun dezaten, gobernuek eta enpresaburuek bultzatu egin behar lukete langileen elkartzeko askatasuna eta babestu erakundeak antolatze-ko duten eskubidea, LNEren hitzarmenek diotenaren arabera. Gobernuek berretsi eta aplikatu egin behar lituz-

kete aipatu hitzarmenak, dagoeneko egin ez badute behintzat.

b) *Esku-hartzea eta kontsultak sendotzea*

- 29.5 Gobernuek, merkataritza-sektoreak eta industriak bermatu egin behar lukete langileen eta horien sindikatuen esku-hartzea ingurumenari eta garapenari buruzko politikak eta programak (nazio- zein nazioarte-mailakoak) formulatu, gauzatu eta ebaluatze-ko lanetan, enpleguari, estrategia industrialei, lanpostuen doiketari eta teknologiaren transferentziari buruzko politikak ere barne direla.
- 29.6 Sindikatuek, enpresaburuek eta gobernuek bitartekoak jarri behar lituzkete garapen jasangarria modu egokian eta zuzentasunez aplikatzen dela bermatzeko.
- 29.7 Alde biko (langileen eta enpresaburuen arteko) edo hiruko (enpresaburuen, langileen eta gobernuen arteko) lankidetzak erakundeak sortu behar lirateke lantoki, herrialde eta nazioetan segurtasunari, osasunari, ingurumenari eta berdintasunari buruzko gaiak aztertze-ko, arreta berezia eskainiz emakumeen laneko egoerari eta eskubideei.



- 29.8** Bitartekoak jarri behar lituzkete gobernuek eta enpresaburuek langileek eta horien ordezkariak behar duten informazio guztia izan dezaten eta erabaki-hartze prozesu horietan eraginkortasunez parte har dezaten.
- 29.9** Garapen jasangarriaren alderdi guztiei buruzko politikak zehazten, garatzen eta sustatzen jarraitu behar lukete sindikatuek.
- 29.10** Ingurumen-politika bateratua eratze-ko erreferentzia-esparrua finkatu behar lukete sindikatuek eta enpresaburuek, baita lehentasunak ezarri ere laneko ingurugiroa hobetzeko eta –oro har– enpresak ingurumenarekiko duen jarrera aldatzeko.
- 29.11** Honakoa egin behar lukete sindikatuek:
- Lantokietako ingurumen-ikuskaritzetan eta ingurumen-inpaktuen ebaluazioetan langileek parte har dezaten ahalegindu;
 - Ingurumenari eta garapenari buruzko tokian tokiko jardueretan parte hartu eta gizarte osoari dagozkion arazoei buruzko ekimen bateratuetan parte hartu;
 - Herrialde- eta nazioarte-mailako erakundeen jardueretan (garapen jasangarriari buruzkoetan) gogotsu

parte hartu, Nazio Batuen sistema-
ren barruan batez ere.

c) Trebakuntza egokia jasotzea

- 29.12** Langileek eta horien ordezkariak honako honetarako eskubidea izan behar lukete: behar duten trebakuntza jasotzeko ingurumenarekiko arreta areagotu, osasuna eta segurtasuna zaindu eta ongizate ekonomikoa zein soziala hobetu ahal dezaten. Trebakuntza horrek behar dituzten ezaupideak eman behar lizkieke langileei bizimodu jasangarria bultzatzeko eta laneko ingurugiroa hobetzeko. Sindikatuek, enpresaburuek eta gobernuek elkarrekin jardun behar lukete bakoitzari dagozkion trebakuntza-premiak aztertzen. Langileek eta horien ordezkariak parte hartu behar lukete enpresaburuek eta gobernuek langileentzat eratzen dituzten trebakuntza-programak pres-tatzen eta gauzatzen.



Programa gauzatzeko bitartekoak

a) Kostuen finantziazioa eta ebaluazioa

- 29.13** Konferentziaren Idazkaritzak kalkulatu duenez, programa honen jarduerak gauzatzea 300 bat milioi dolar kostatuko da –batez beste– urtean (1993tik 2000ra bitartean). Nazioarteko komunitateak dohaintza gisara edo oso baldintza onetan emango du diru hori. Gutxi gorabeherakoak dira kalkulu horiek eta gobernuek ez dituzte aztertu oraindik. Benetako kostuak eta bal-

dintza finantzarioak (emakidaz kanpokoak barne) gobernuek erabakitzen dituzten estrategien eta programa espezifikoen araberakoak –besteak beste– izango dira.

b) Ahalmena handitzea

- 29.14** Arreta berezia jarri behar litzateke honako honetan: hiru aldeetako bakoitzaren (gobernuak, enpresaburuaren elkarteak eta langileen erakundeak) ahalmena sendotzen, garapen jasangarriaren aldeko elkarlana hobetearren.

